# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 625

*EBAZPENA, 2014ko urriaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena; honen bidez, EAEn lurraldea zaintzeko akordioetan jasotako natura-ondarea kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko 2014rako laguntzak ematea ebazten da.*

Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Agindu bidez (2014ko ekainaren 13ko EHAA, 111. zk.), lurraldea zaintzeko akordioetan jasota dauden natura-ondarea zaintzeko jarduerak finantzatzeko laguntzen deialdia egin zen.

2014ko ekainaren 3ko Agindu horretan ezartzen denaren arabera, eta berariaz eratu den balioespen-epaimahaiak egindako txostena aztertu ondoren, hauxe

EBAZTEN DUT:

1.– Ondoko diru-laguntza hauek ematea: I. eranskina.

2.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak 2014an egin beharko dira; betiere 2014ko abenduaren 31 baino lehen garatu eta bukatu behar baitira.

Diru-laguntzaren ordainketa 2014ko ekainaren 3ko Aginduaren 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak ebazpena eman ondoren.

3.– Ondoko diru-laguntza hauek baztertzea: II eranskina.

Baztertuak izateko arrazoien azalpena ondorengoa izan da:

1.– Proiektuak ez du loturarik lurraldea zaintzeko akordioetan jasota dauden natura-ondarea kontserbatzeko jarduerekin.

2.– Ez daude erregistroetan legez eratuta eta jasota, gutxienez Agindua argitaratu zen eguna baino urtebete lehenagotik.

3.– Epez kanpo egin da eskaera.

4.– Aurkeztutako eskabideko akatsak ez dira zuzendu epe barruan. (Ez dute aurkeztu lurraldea zaintzeko akordioa).

a.– Ez dira zaintza erakundea.

b.– Ez dute aurkeztu lurraldea zaintzeko akordioa.

5.– Puntu gutxiegi lortu ditu proiektuak.

6.– Ez du deialdiaren 4.2 artikulua betetzen. Agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lur-zaintzako erakundetzat hartuko da bere estatutuetan berariaz jasotzen duena natura-ondarea kontserbatzen jarduten duela, betiere egiaztatzen badu bere jardueraren erdia gutxienez helburu horretara bideratzen duela.

7.– Deialdiari uko egiten dio.

4.– Esleitutako diru-laguntzen zerrenda bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek jakin dezaten, diru-laguntzen deialdiaren aginduko 15.4 artikuluaren arabera.

5.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 azaroaren 26an Legeko 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,<br>
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.

# I. ERANSKINA

| Erakundea | Lurraldea | Proiektua | Puntuak | Jarduera-ren lekua | Akordioa-ren iraupena | Potentzia Itasuna | Eskatutako diru-laguntza € | Diru-laguntza € |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Salvagoro Asociación de promoción cultural | Araba | Protección de simas y ereas en el altiplano de Serra Sálvada /Gorobel Mendilerroa. II fase. | 77 | 35 | 15 | 27 | 17.421,71 | 17.421 |
| Naturtzaindia Elkartea | Gipuzkoa | Mejora del estado de conservación de los habitats de Interés comunitario forestales en el ámbito de la ZEC Hernio-Gatzume. | 77 | 35 | 20 | 22 | 20.000,00 | 20.000 |
| Fundación Lurgaia Fundazioa | Bizkaia | Actuaciones de mejora ambiental y paisajística en el arroyo Amunategi en Busturia. | 70 | 35 | 20 | 15 | 16.970,00 | 15.870 |
| Aranzadi Zientzia Elkartea/Sociedad de ciencias Aranzadi | Gipuzkoa | Custodia del territorio agrícola para favorecer la conservación de anfibios. | 60 | 20 | 15 | 25 | 20.055,00 | 20.000 |
| Aranzadi Zientzia Elkartea/Sociedad de ciencias Aranzadi | Gipuzkoa | Ampliación del proyecto de Custodia de los Terrenos de Gautegiz- Arteaga. Fase II | 59 | 35 | 14 | 10 | 20.401,70 | 20.000 |
| Seo/Birdlife | Araba | Gestión de pastos y mejora de charcas ganaderas en Castillo/Gaztelu | 58 | 20 | 10 | 28 | 20.000,00 | 20.000 |
| Fundación Lurgaia Fundazioa | Bizkaia | Restauración del bosque autóctono en Larruskain | 55 | 20 | 20 | 15 | 20.000,00 | 19.000 |
| Ekologistak Martxan | Araba | Custodia del Territorio: Plan de Acción para la biodiversidad en los Montes de Utilidad Pública de Alegría-Dulantzi. 2014 | 53 | 20 | 20 | 13 | 20.363,00 | 20.000 |
| Naturtzaindia Elkartea | Gipuzkoa | Restauración de los hábitats forestales del monte Uzturre en Tolosa. | 52 | 20 | 20 | 12 | 19.970,00 | 7.709 |

# II. ERANSKINA

| Erakundea | Lurraldea | Proiektua | Puntuak | Jardueraren lekua | Akordio-aren iraupena | Potentzialta-suna | Aurrekon-tua | Arrazoia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Seo/Birdlife | Araba | Iniciativas de custodia del territorio dentro del ámbito del término municipal de Vitoria | 45 | 20 | 10 | 15 | 19.966,24 | 5 |
| Gaden-Grupo alaves para la defensa y estudio de la naturaleza | Araba | Acciones de Conservación de la Biodiversidad en Sistemas Ambientales con Usos Agrarios en la Llanada Alavesa | 43 | 10 | 20 | 13 | 15.548,00 | 5 |
| Ekologistak Martxan | Araba | Custodia del Territorio: Plan de Acción para la biodiversidad faunística en el Jardín Botánico de Santa Catalina. | 37 | 12 | 5 | 20 | 19.468,00 | 5 |
| Itxina-Asociación de ganaderos de Orozko | Bizkaia | Mantenimiento espinar Odeieta y Zaloalandieta | 35 | 25 | 5 | 5 | 15.730,00 | 5 |
| Gaden-Grupo alaves para la defensa y estudio de la naturaleza | Araba | Acciones de conservación de la naturaleza en el Pinar De Dueñas 2014 | 32 | 15 | 5 | 12 | 13.639,00 | 5 |
| Suspergintza Asociación para la potenciación de la animación socio cultural | Bizkaia | Recuperación de charcas y acciones para mejorar la Biodiversidad en las zonas húmedas del Saúco | | | | | | 4-b |
| Basoa Fundazioa | Bizkaia | Acuerdo de custodia del territorio en la Zec de Artibai y sus afluentes. | | | | | | 6 |
| Basoa Fundazioa | Bizkaia | Acuerdo de custodia del territorio en Laida-Atxarre. Actividades de conservación activa | | | | | | 6 |
| Apanur-Asociación de Propietarios afectados Parque Natural de Urkiola | Bizkaia | Acuerdo de custodia del territorio en el paraje de Larrano-Anboto. | | | | | | 7 |